



BEREN UMEAC BULARREZ

ASITZECO CONTUAN

AMAC EDUQUI BEAR DITUZTEN

ARGIBIDE EDO JAQUINBEARRAC

Medien jaun

Budin, Landrin, Gaston Merry eta Variotec ipitiat.

Amac bere umearenganaco duan naitasuna ez da bear diña izaten berez bacarric ura bear bezela azitzeco, eta onegatic jaquin bear ditu emacumeac cembait gauza nola eguit bear diran umea azitzen ari dan bitartean, bai bere balarrarequin edo baita ere beste moduren batera. Ez da nste litequean becif gauza erraza ume bat ongui azitzea eta onec izan litzaquean oquerbideric asco ez lirague guertatueo bear becelaco contua berari artueo baluzayoque jayo berria dan bitartean. Cembait ama izan oi dira berac naigabetanic beren umeen calteguilleac eta oec gashotzen dira ematen diozcatelaco bear ez becelaco esne charrae edo janari ez jagozquion modicoac eta demhora ez bearrecoac!

Amaren bularrezco ume azitzea.

Ama batec beregan daucan eguinecoric lembicoena da bere bularrez semca azitzea bado amaren esuca da bere izatez umearena eta ez beste inorena jayotzaco legueac (ceñac gorde bear ditugun) eracusten diguten becela. Emacume batec ez du utzi bear

bere semea azitzen ez bada bacarric bere osasonac aguintzen ez dionean edo Medicinac galerazitzen dionean, bada amaren esnea da umearentzat latocoric egoquiena eta gainera onec edukiatal izalezquean gaitzal alde egiteco erremedioric onena.

Umea bulartzan azittean costuan eduki bear diran gauzac.

Bularra etorri oi zayo emacumeari aurra eguita eta ondrenge bi edo iru egunetan, Aurra ez du izaten premiric ecer artuzeco jayo eta lebbieico oguei ta lau orduetan.

Baldin bularra etorrico az bulitz esandaco dembora orretan eman lezayoque aur jayo berriari ur goratu piscabat edo ura eta esnea erdizca, izanic bata eta bestea iraquin ondoren ozutacoa. Jayozatic ondorenge oguei ta lau edo bertoguei ta zorizi ordu barrumbean umeac eguita oi duan ziquinquern da colore illunecoa, eta bularra artutzen asitzen danean mudatzen da colorez arturic ori antzecoa eta arrautza gorringo nastitacoaren modocoa. Comeni dan gauza da ume jayo berriya laister eta egun guchi artuan dituanean bularrean ipiatzea, ez bacarric oitu dedin bularra artizen ez bada bai ta ere amari bular muturrac eguita dizalziquin eta atera ditratzean lebbieico esneac eñac icendatzen diran *oritac*. Badian alaz guciac ere ez dira beti bear beccela moldatzen amaren bular muturrac eta orduan da usariyoa ipiotzea aetan artaraco egitac dauden bular tirutzalle cristalezco batzuec, zedac diran era berean gauza onac eta provechuzcoac bular muturretaco zartatuec irigitzen diranean. Oec eguit ez ditocen da erremedioric onenetaco bat ez utzitzea umeari tiraca egoten bularrean dembora lucean, eta bular muturrac garbitzea ur iraquid eta ozutacoarequin umeari bularra emateraco eta eman ondorean bereala.

Oec nolatan umeari bular aldiyac eman bear zaizean.

Ume jayo berriari eman bear zayote bularra bi ordutic bi ordura egunez eta beste bi aldiz gau gucian, au da, zortzi edo bederatai bider egunaren oguei ta lau orduetan.

Umeen urdalla edo estomagua da bicero chiquia jayo herritaco aurrenengo aste batzuetan eta onegatic eman bear zayote maiz bularra; badian gueroazcan, au do, sea astetic bi illabeta ditozten ezqueroztic usco da bulertzea umea bi ordutic bein egunaz, eta utzi lotan igaro dezala gau guceico dembora; bost edo sei illabete ezquero utzi lezaque bulartzez iru ordutic bein ez bada.

Guztiz usariyo charra da ume chiquia bularrean ipitzea negar egiten duan bacoitzean bada beteizen zayo bear baño gueyegui eta maizago bere estomagua eta emende etorri lezayoque goraco eta beracoac onela bulartzan dan umeari. Baldin emacumea bulartsun bada, naicoo da ematea umeari asi aldi bacoitzean bular batetic bacarric chandatuaz bata eta bestea onela berdin esnez bete ditocen; eman aldi bacoitzean asco da edukiitzea amar bat minutu bulartean; bein illabete bi igaro ezquero esandaco modo opetan, andican aurrera eman lezayoque bularra maiz alde batetic edo bestetic nai dan moduan. Esan degun beccela, artu lezaque umeac illabete duan artean gabaz pare bat aldiz bularra, badian ordutic aurrera amac inure ona bada oitu bear du bere umea lo egoten goiz aideraño bulartu gabecanic. Ume chiquiac ez du negar eguten duan guzian adierazo nai goscac dagoala eta onegatic ez zayo bularric eman bear isildu dedin; cembat eta guchiagotan oitutzen dan ume bu bularra eruten gabaz, embat obeago dan gauza da guztientzat.

Bularreco umeaquin edoqui bear diran contuac.

Ez du ecer esan nai umeac pisoyaletan edo beste moduz bildu eta jantziac egoteac; hocarrie gauza bearrecoa dana da, egon ditezela garbi eta oztu ez ditezcan moduan bada ume jayo berriac dira biciró ozquillac eta heragatic egon bear dute seascan ongui estaliac bear balitz algodoizeo oin estalgarriaquin onetaco etza eduquitzen badute. Umea ziquintzen dan bacoitzean garbitu bear da ongui, eta ez da gueyegizeoa izango ere egunero bafu epel bat berari ematea ur garbiarequin. Seasca eduqui bearda lecu argui eta aiayean baba umeac landare gazteac beze-la, bear du azico bada egozquiaren eta arguiaren laguntza; eta egoaldia ona dagoanean atera bear dira ere campora ordu pare bat neguan eta gueyago berri-ur udaran erabiltzen dala besoetan chiquia dan bitarteac, bafan utzi lezaqueala ere bere amac gurdi chiqui moduco batean azitzen ari dalaco pisoz besoac necatzen diozanean.

Bularreco umea daucan emacumeac bere buruarequin eduqui bear dituan contuac.

Bere buruari ongui contu eguin bear dio umea azitzen ari dan emacumeac cergatic berac osasunean izan litzaquean oquerrac eta ondoezac; djoacean zuzen eta bidez bere umearen gain. Beregatic ez du premitu bear lancan gueyegui bere indarrie, ibilliaz campoco aicea artzen egunero bere umearequin; artuco diraldan jatecorie garbien eta egoquena, dala aragutic eta baita ere baratza gauzetic, eta era berean ari lezazque erari garbi eta indar guchicoac eta iturric ur frescoa; ur iracequia eta indar aundico ardoa dira calteguilleac cergatic oec amac eranen bitartez, sorta lesayozque umeari cembat gaitz modu eta oetatican bat dardarara gaitz eta arracen aundicoac.

Umea acitzen dagoan emacumeac ez du artu bear itioiz ere sendagai edo erremediorie medicuaren berri gabe cergatic oec ere nastutzen diran odolarequin eta izan litzque umearentzat caltegarriac; bafu era berean naiz ta amaren gasboa ariña danean eman lezayoquean bularra bere umeari, baldin arreec duan gauza bada contuzcoac, orduan quendu beardu bularreriec aldan laisterrena ume chiquia cergatic esnea chartu eguiten dan. Umea azitzen dagoanean emacumeac ez du izan oi illecorie gueyenean, bafu badira ere batzuec au bera guertatzen ez zayetenac eta eceren oquerric gabe beren umea azitzen dutenac; au orrela guertatzen da ere aur eguitico gueldisena badira naiz eta ez izan dembora laceraco orduan eduqui oi duten esnea.

Guferacoan comeni da ere emacumeac aurra azitzen daucanean ez dezala eraman naigabetasun modu ascotacorie cergatic oen guztien erantznera ematen duac esneac gaiduaz bere ondasuna eta bear belacoa izatea.

Bularrez eta beste gauzez umea azitzearan gauzan.

Emacume ascori guertatzen zayo iru edo lau illabete aurra eguin ondorengo arquitzen dirala bear dita esneren jabe ez dirala beren umea azitzeco.

Onelacoac gorde bitex ongui ematez umeari aya edo bestelaco irin claseaquin eguidaco janariac bada ontaraco nasteaac bear becela maniatzeco ez dagoan artean prest umearen barrumbea eta ecarri oidizcate oei ondorenean heracoac, ceñac utzitzen duten jayo berria goztiz argaldoric eta indargabetric. Alaz guztiaz ere eta naiz bularra guchuua eduqui, equingo du aleguifa emacumeac ematen ari lezayoquean bular guztia bere umeari, eta iru bat ordu guchi gora bera bular aldi bacoitzaren ondorenean emango zaio beste artuadi bat ur iraquidetan garbi-

tutaco esnearena onetaraco dauden ontzi cristalezco chiqui batzuetatic cenac icendatzen diran *mamadora* edo *titi ordecoac* modu onetaco aurra azitzea icendatzen da bularrez eta beste gauzaz aurra azitzea au da erdiaca amaren bularretic eta orain aitortu degun ontzi generotic. Bi illabetera umea iristen danean goeyenembat aldiz artu lezaque ur iraquinetan garbitutaco bei-esnea eta inoiz edo beste bacarric guertatuto da sasoi au ezquero eman bear izatea ur-esnea jayo berritan bezela, esne usac gaitz eguiten diolaco. Poliqui eta guchica oituz jua bear da umeac artu dezan bei-esne ongoi garbitutacoa amaren bularraz gahera, emanaz aurrenean, egunean bi aldiz mamadoratic, eta gueroagoan eta sarriago; badira ere umeac gabaz bacarric artu nai izaten dutenaz amaren bularra eta egonaz mamadoracoa, bano ez da au usariyo ona eta seguitu bear dana gai-onetan.

Naizic beñ comeni da umeac pisatzin.

Naiz izan begu onecoa emacume bat antz emateco bere umeac izaten dituan gaidu irabaciac, ezin irichi liteque bebere pisuac ematen duan arguitasun eguitzcuagana. Astero edo beintzat amabostean beñ comeni da jaquitca cer gora beta eguiten duan umeac bere pisuan bada modu onetzat baliyatu bear degu jaquitco gai orri dagoquona. Aurrenengo illabeteetan irabaci oi dute ume jayo betriac batz beste egunean ontza bat, eta esne oneco emacumea baldin bada bularra ematen diona, icusico da umeac bostgarren illabeteraco pisatzen duala jayo zinean alaco bi; baldin batan orduan zazpi libra, irichico da ama-lautara best garren illebetetan. Asto bat edo biyan pisuan gaidu edo hatere irabazitzen ez duan aur jayo berria, esan guentzique dagoala gasboari edo bear dila esne artzen ezduala. Gahera umea pisatzeac be-

requin daucan beste gauza on bat da, amac au emateaz bada ura medratzen, ediqui lezaqueala bear bada berac esne guchi edo gaidutacoa eta onentzaz conturaturic asi liteque bere bularraz gahera mamadoraco esnea ematen lenago esandaco moduan.

Gasadu esnez umea azitzearen gahera.

icendatzen degun modu onetan erri aundietan eta baita ere necazari gendeen artean dago sarturic usariyo aundia umea emateco beren alimentea mamadora edo ontzi lenago esan degun oetatic. Orain icendatzen degun modu onetan dago chit usariyo guchi ematez umea asto, aunitz, edo ardien esnea.

Oraindic dembora asco ezdan arteraño erri aundietan illtzen ziran ume chiqui asco eta asco, cergatic ematen zitayoten mamadoratic edozein esne ziquñ cenarea bitartez sortzen zitzaizcaten beracoac eta esteetaco gaitzac hategere udaraco demboran.

Ur iraquifex gorbitutaco esnea.

Emen icendatzen degun modu onen bitartez gauda esnearen garbitasuna eguiten dan ezqueroztic ascoz ume guchiyago illtzen dira lenago usariyo au ipini gabe cegoan dembora aietan bano; eta gauza au onela izanic ezin eman lezayoque umeari ganadu esneric ongoi garbituta egon ez dedinca bada asco-tan ez dira bear bezelacoac izaten denda eta beste locu batzuetan saldu oi diran esneac: esne charraren artu aidi batec bacarric ill lezaque inoiz beste ecer gabe ume jayo berri bat.

Erri aundietan ez da aif erraz izaten billatzea esne on eta bear becelacoa; eta naiz au onela ez dan guertatzen aif maiz erri chiquietan, alaz guztiaz ere ohea da beti umeari mamadoratic eman bear zayon esnea garbitutacoa izatea. Esne garbitutacoa da bi

moducoa; bata, norc berac echean egiten duana, eta bestea, beñ garbitu ezquero dendetan saldu oi diana; garbitasun au eguiteco usatzen dira.

Esnea garbitutzeco ontziac.

Ontzi genero oetan gorbitu bear dan esneac bearco du izan aldan onena, bada berez esnea charra bada, edo mindua badago, ezdu onduco nai aimbeste gorbitzeac. Esnea garbitzeco ontzi oec daude eguñac alambrezeo sesto batzuec becela, zefetaco bacoitzean jartzen diran zortzi edo bederatzi botilla chiqui esnez beteac eta ongui ichiac. Onola ipiñi ondorean sartutzen dira sestua eta botillac beste ontzi aundi batean zeña izan litequean conturaco pertz edo pazi bat urez beteric dagoana eta zeñari iraquin azten zayon iru bat ordu laurden demboran. Modu onetan ur iraquinetan dauden esnez betetaco ontzi chiqui oec gorbitzen dira ongui eta baita ere quendutzen zaizca esneari eduqui lizazquean ziquñeta gauza caltegarri guziac guelditzen dala bear bezelaco garbia eta ume chiquiari ematecho moducoa. Ez da gorbitu bear esandaco modu onetan egunean umeac artu biar duana esnea besteric, eta an dagoan botilla chiqui bacoitza da oman aldi bateraco bacarric; beragatic esne garbitzeco lantegui au eguñi bearco da egun egunero, umeac bear bezelaco esnea artu dezan. Erri aundietan saldutzen da ere ontzi aundiagoetan esne garbitutacoa, baha comeni da onelacoa amac probatutzea nolacoa dagoan umeari oman baño lenago.

Urez nastutaco esnea.

Naiz eta ume jayo berri ascoc artutzen duten bei esnea usic eta ecer uric bota gabe, beti izanda usariyo aundia esnea urarequin zerbait nastutzea umeac host edo sei illabetera irichi bitartean, naiz eta emen esan bear degun ere, ez dala au eguita beti gauza

bearra. Umeac lau aste igaro bitartean bere jayotzatic, ascoc du artzea bear duan bei esnea irutatic bat ura duala, eta pishcabat gozatua; bada bei esnea ez da berez gozo ascocoa. Lau astetic bi illabete bitartean naicoa du esneac ur iraquifizeco laugarren parte bat; eta emendic aurrera artu lezaque esne usanaiz eta beti piscacho bat gozatua izan bear duan. Ez da beñere nastu bear umeac eran bear duan esneric, ez bada ur iraquindacoarequin bacarric, eta ez usariyo charra batzuec duten becela, garagarra edo ogui errea sartutaco uraquin, eta beste oraindic obeeac ez diran beste batzuequin.

Mamadora edo titi-ordecoco nolacoa izan bear duan.

Mamadoric onena da botilla chiqui haten ichura daucana eta ongui-nai danean garbitzeco corchuz ichi litequeana; gañera ontzi oni ipintzen zayon titi-muturra izan oida erraz alferric galdu litequeana. Mamadora esnez betetzeco garbitu bearda ongui ur iraquinarequin edo bestelaco ur gazitutacoarequin. Mamadorac berequin daucan titi muturra izan oi da erraz alferric galdu litequeana, eta au guertatzen danean umeac eciñ irinchi duan moduan, bearco da ipiñi beste bat eta berritu lenago zeucana.

Mamadora garbi egotea da gauza eñi bearra bada bestela bertan guelditzen diran esne ondarrac ciquindu eta gazitutzen dute berriz botatzen dana, eta izan liteque au bidea onelaco ontzietatic esnea artutzen duten umeac gashatzeco eta estectaco gaitz charren mende beren buruac ipintzeco. Badira ere umeac naiz cuchare edo basotic esnea eraten daquiteneac bañan ez da usariyo au comeni izaten dana cergatic modu onetan irinचितzen duan umeac, bat batera eta colpez estomaguan bear baño esne gueregui, eta emendic etorri lezaizquiyoque berari lecu artaco gaitz zembait moducoac; eran-ontzitic onenac edu-

qui bear dute titi-muturra zulo chiquiz ongui betea eta onelacoac dira gueyenembat edo beti escu artean duqui bear diranac izendatzen degun lan onetaraco.

Eran-aldi bacoitzean umeac artu bear duan esnea.

Gauza jaquinu da ume jayo berriac artu bearco duala sei illabete dauzanac baño esne guchiago eta beragatic amac jaquin bear du guchi gora bera ume-ari cembat esne egunean eman bear zayon. Gueyean bete of dira esne ontzi edo mamadorac bear baño gueyago eta izan liteque an bidea sortuzeco umeai beraco corrimentu gaiztoac zergatic artu azten zayoten esne gueyegui edo comeni ez zayoteten dina. Beragatic izango lizaque usariyo ona esne-onziac eduquitzea berequiti sifale jaquin hatzoc ce-haren bitartez iguerri lezayoquean cembat esne dau-can bere barruan.

Orain ipinico degu emen cembat eman bear zayon umeari, bere edadiari eta estomagu edo urdallaco indarrari douquionez, hularitu aldi bacoitzeco.

Aste bat umeac daucan bitartean emango zayo:

Aldico ur esnez.....	Ontza bat.
Bi asteco umeari.....	Ontza eta erdi.
Iru astecoari.....	Bi ontza.
Lautic zortzicoai.....	Bierditic irura.
Bi illabeteoari.....	Iru ontza eta erdi.
Iru illabeteoari esne parua.....	Lau ontza.
Lau, bost eta sei illabeteoai.....	Bostetic kartzira.
Zazpi illabeteic urte betera.....	Seitic zazpi ontzara.

Icendaturic utzi ditugun esne neurriac dira ume osasun oneco eta gorputz bear becelacoac dauc atenen-trat, baño osasun bigunecoa diranac eta dembora baño len jayotacoac artu bear dituzte aurrez Medicu batec bere iritzian agundu lezaozqueanac.

Mamadoraco eman-aldi batetic bestera gorde bear dan dembora.

Bularreco eman-aldiac becela eduqui bear du ere mamadoracoac bere tarte edo dembora jaquinu. Umeac bost aste dauzan bitartean eman bear zayo egunaz bi ordonic bi ordura eta boin edo bi aldiz gau guztian; sei aste dituan ezqueroztic bi ordu eta er-ditic boin; lau illabeteetan iru ordatic; da esatea, umeac artuco duala mamadora zortzi edo bederatzil aldiz egunaren oguel ta lau orduetan illabete daucan artian; zazpi aldiz, bi, iru eta laugarren illabetean; eta bost edo seitan dembora ontatic amar illabe artean; ona izango da ere sayatzea quantzen aldan le-nena gabaz ematen zaizcan esne artu-aldiac. Gafe-racoan esan bear degu ere onela azitzen diran umea-quin eduqui bear dala erreparo gueyago amaren bu-larraz azitzen diranaquin baño, eta pisatu bear dira la astero, icusteco zer galdu edo irabaci eguiten di-joacen. Alaz guztiz ere icustico balitz umea argal-duaz dijoala edo beraco corrimentua daucala, eman bear zayo contu Medicu bati aldan la-sterren gauza oen guertaeraz; eta an etortzen dan bitartean edu-quito da umea ur iragundaco ozta besteric ematen ez zayola.

Bularra quantzeraco umeai eman bear zaizten janari edo artzecoac.

Nai baldin badegu ez dituzela guertatu umeari bu-larra quantzeco demboran cembat oguer bide eta naigabe, asi bearco da emez gaurra ematen zerbat jateco sustantzi garbi eta onecoac. Amaren bu-larean axi diran umeai eman bear zayore ganadu esne garbitutacoa oitu dituzten lenago ez bezelaco esnea eraten. Zortzi edo amar illabete umeac dituan artean ez du artu bear ez bada esnea bacarric, cergatic oraindic ez diran jayo poan ortzac; eta orduan asi

liteque iriñezco jan batzuec nola diran aya eta onen antzeocoac ematen. Eman lezayoque ere dombora icendatutaco au ezquero sopa piscabat edo patata egosi eta nastutaco batzuec, eta baldin janari oequin aguertzen bazayo beracoa, beraren icuan emah lezayoque arrozaren sopa eta arroz-ura: arrautz bigun eta urtan egosiac dira ere janari egoquiac. Guertitu oi da ascotan ganaduaren esnearequin azitzen diran umeac egotia sabeletic libratu ezidic; eta oenizat erremedioric onena da este garbibat artzea malben ura eta olioarequin oec alcar nasturic; baldin alaz guciac ere garbituco ez balira. Medicuac aguin-duco dio artzeo beste zerbat gauza berari esatea dagozquionac.

Umeac urte eta erdi dauzanean, asi liteque ematen araguiaren zumua, eta baita ere aragnia bera biguna baldin bada; baita ere eman lezaizquiyoque oguia patatac, eltzecoa, arroza eta beste orlaco janari modu batzuec, bado beti esnea era berean artutzen duala, bada bada guztietan indartsuen eta artzeoric onena: baita ere sasoi onetara umea irichi ezquero, eman lezayoque ichasoco arrai gauza zerbat, bear dan contua ezurraquin eduquiaz.

Bucaera emateco aitortu ditugun gauza oei esango degu cembat erri aunditan ipini dirala lecu jaquisac umeac juan ditacen actara. Medicuac urtu deizquioten beardiran erreparaoac, eta beretan ematen zayotela ere merque esne ona eta garbia, onela gurasoac, batecere languille gende artecoac billatu ditzaten beren umeac ongui eta bear becela atzizeco laguntasunac, ceñac ez dagoan esan bearric ceñ ongarriac eta gauza egoquiac diran ume gendeentzat.